

LURRALDE ESKEMAK BI URTE BETEKO DITU LASTERREAN, ETA OBRATZEAK «PORROT» EGIN DUELA ESAN DUTE

# Estatuak Ipar Euskal Herriaren garapena «izozturik» duela salatu du ABk

■ Heldu den martxoan bi urte beteko dira Lurralde Antolaketa eta Garapen Eskema burutu zenetik

■ Egun, hala ere, eskeman ageri diren hainbat sail bete gabe dira oraino, Abertzaleen Batasunak adierazi duenez

■ Estatuak Ipar Euskal Herriaren garapena «izozturik» duela salatu eta Euskal Departamendua aldarrikatu du ABk

Hur Gorostiaga / Baiona

AZKEN bost urteotan Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluko lanetan burubelari aritu izan diren Abertzaleen Batasuneko ordezkariak beren kexua agertu zuten atzo prentsaurrekoan. Patxi Noblia —Euskal Herria 2010 eta Garapen Kontseiluaren sortzaile gisa—, Marie Andree Alberbide eta Manex Unhassobizkai —Hautetsien Kontseiluko kide eta Garapen Kontseiluko zuzendaritzako kideak—, eta Jakes Abeberri, Jakes Borthairu eta Robert Alvarez —Garapen Kontseiluko kideak— izan ziren «sortutako esperantzak ustekabe bilakatu» direla adierazi zuten.

Patxi Nobliaren erranetan, «Estatuak Ipar Euskal Herriko garapena izozturik du». 1990ean 2010 proiektua abiatu zelarik, Estatuko ordezkari den suprefetak «jarrera irekia» agertu zuela dossieren aitzinarazteko, baina geroztik izan diren biek «aferak izoztu besterik» ez dutela egin azaldu zuen. Gisa horretan, proiektu ezberdinak aitzinarazteko «borondate eta ahalmen eskasia» salatu zuten. Adibide gisa, Hizkuntzaren Kontseilua aipatu zuten, euskararen hizkuntz politika plantan ezartzeko Hezkuntza Nazionalaren partaidetza aurreikusitako bazen ere, egun suprefetak «zerikusirik ez» duela adierazi baitie.

«Lurralde Eskema 1997ko martxoan onartu bazen ere, 1998ko ekaina arte itxoin behar izan zen horren obratzea segituko zuen agindua gauza zedin. Bitartean, aurreikusitako proiektuen bi heren martxan zirela erran zitzaigun, eta egun ere horretan gara», azaldu zuten Marie Andree Alberbidek.

Ipar Euskal Herria «gidaririk gabeko hegazkina» dela azaldu zuen Jakes Borthairuk, eta Ipar Euskal Herriaren geroa zuzentzeko instituzioa eskas dela. «Garapen Kontseiluan hastapenetik lan



Garapen Kontseiluko eta ABko ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten atzo.

egin baldin badugu ere, haste-hastetik xede guztien obratzeko instituzio bat behar zela erran genuen. Egun ere hala aldarrikatzen dugu, Euskal Departamenduekin soilik erdietsiko baitugu Lurralde Eskemaren gauzatzea», azpimarratu

zuten. Ildo horretatik, Nicole Peryk «hitza jan» duela salatu zuten, eta heldu den urtarrilaren 30ean Euskal Departamenduaren eta euskararen ofizialtasunaren alde eginen duten manifestaldirako deia egin zuten.

Garapen Kontseiluaren

geroari buruz, berriz, urtarrilaren bukaeran Garapen Kontseiluko zuzendaritzak egitekoa duen egoeraren azterketa igurikatzen dutela adierazi zuten, eta abertzaleen partehartzearekin segitu ala ez heldu den martxoan erabakiko dutela.

puntu puntu

## Bete gabeko hutsuneak

■ Lurralde Eskemaren obratzean bete gabe gelditu diren arlo nagusiak azpimarratu ditu ABk.

**Unibertsitatea** • «Aurkeztu den plangintzak 2004. urterako 4.500 ikasle iragartzen ditu, kasurik hoberenean ere. Unibertsitate serio eta erakargarria izateko, ordea, gutenez 6.000 ikasle beharko lirake data horretarako, 2010 urtean 10.000 izan daitezten».

**Euskara** • «Helduendako irakaskuntzan ez da deus egin. Euskal Irratien kasuan, bi urte behar izan dituzte batzorde soila osatzeko. Euskararen irakaskuntza zabalteari buruz, batzorde bat osatu besterik ez dute egin. Administrazioan elebitasuna bultzatzeari dagokionez ere, oraindik deus ez da egin».

**Autobidea** • «Baigorriko haranetik pasako litzatekeen autobidea, arrunt proiektu inposatua litzateke. Kanpoko erabakitzaileek Madril-Brusela ardatzean egin nahi duten errepide bat da, bertako jendeen iritzia kontra. Proiektuak aitzina egiten badu, alferreko kalapita sortaraziko dute».

**Arrantza** • «Arrantzari buruzko eztabaida 1996an Garapen Kontseiluko eztabaidetatik kanpo ezarri zuten. Geroztik ez da deus aitzinatu, nahiz eta bitartean hainbat arrantzaletan ttipi desagertu eta atzulezineko kalteak sortu itsasoan».

**Laborantza** • «Laborantzari buruzko proposamenak ere kanpo gelditu ziren. Egun Paueko Laborantza Ganberak blokatzen du guztia. Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbera lehenbailehen sortzekoa da».

## Nicole Peryren erranak «lotsagarri» direla dio Gazteriak gazte erakundeak

Erredakzioa / Baiona

GAZTERIAK Ipar Euskal Herriko gazte erakundeak «lotsagarritzat» jo ditu Nicole Peryk Euskal Departamenduari buruz errandakoak. «Euskal Departamendua ren auzian, urratsak egin behar ditu eta ez atzerapausoak. Ausardia politikoaren garaia da eta ez azpijoko politikoena», azpimarratu du. «Euskal Herri honetan kontestu politikoa aldatzen ari delarik, eztabaida eta gogoeta sakonak egiten ari direlarik, Euskal Herriko etorkizuna jokoan delarik, Frantziako Estatuak bere betiko bidean segitzen du, bere jarrera hertsiarekin».

Ildo beretik, euskal presoen Euskal Herriratzearen auzia ez dela aitzinatu dio Gazteriak erakundeak, eta Parisen urtarrilaren 16an eginen den manifestaldira deitu ditu Euskal Herriko gazteak. «Galdegiten dena legearen errespetua besterik ez da, eskubide bat bete dadin. Tokiko agintariei behin eta berriz erran zaien gisan, orain Parisko agintariei azpimarratuko zaie hainbeste defenditzen duten Estatu demokratikoan eskubideak zapalduak direla eta Euskal Herriak dituen eskubideak zapaltzen dituztela».

Azkenik, Jeronimo Prieto, Josemi Esparza eta Egoitz Urrutikoetxeari Parisko Auzitegi Korrekzionalak ezarritako hiru urteko presondegi fermuko zigorra salatzeke, Eguberrikari, Iparraldean milaka agiri zabaldu dituztela azaldu du Gazteriak gazte erakundeak.